

**“ARMENTIA-2 GAS ZUNDAKETA”-RI ALEGAZIOAK BABESTEKO
SINADURA BILKETA.**

TRANSIZIO ENERGETIKO BATEN ALDE!

GAS PUTZURIK EZ!!



**FIRMAS DE APOYO A ALEGACIONES AL “SONDEO DE GAS
ARMENTIA-2”**

¡A FAVOR DE UNA TRANSICIÓN ENERGÉTICA!

¡¡NO A LOS POZOS DE GAS!!

Sinadurak jasotzeko epea **uztailak 27**an bukatzen da

Fecha límite para la recogida de firmas **27 de julio**

GAS PUTZURIK EZ!

Gizartearen erronkarik handienetariko bat klima aldaketa gelditzea da. Hein handi batean, arazo horren jatorria erregai fosilekiko dugun menpekotasunetik dator, berotegi efektua sortzen dituzten gasak askatzen baitira. EAEk energia arazo larria duen komunitatea du. Europako helburu den 2030. urterako energiaren %32-a berriztagarria izatetik oso urrun, %7-8 tamalgarri baten aurrean gaude. Baina helburu hori bilatu beharrean, gasa ustiatzeko proiektu arriskutsuen aldeko apustua egiten da. Horren adibidea, Subilla Gasteizen egin nahi den Armentia-2 GAS putzuaren proiektua. Fracking teknikarekin ustiatu nahi zuten toki berean.

Burugabekeria honen adierazlea da Armentia-2 putzua Gasteizko udalean kokaturik egotea, 2012. urtean "GREEN CAPITAL" izendatua izan arren. Gure ingurune naturalaren gaineko eta nekazaritza zein abeltzaintza jardueren gaineko mehatxua oso handia da. Zulaketek Zadorraren kontserbazio bereziko guneari edo Gasteizko mendiei eragingo diete, besteak beste. Gasteiz, hidrokarburoen ustiaketaren hiriburua bihurtu daiteke.

Putzuaren helburua frackingaren teknika erabili nahi zen zonalde berean gasa dagoela baieztatzea da. Ustez konbentzionalak diren tekniken bitartez hau burutzeko, 5000 metroko sakonera duen zulaketa bertikala eta 1000 metroraingoko luzera duten albotarako lau putzu burutu beharko dituzte. Armentia-2 putzuak Subillako akuiferoa zulatu beharko du, EAEko lur azpiko ur erreserbarik handiena, alegia. Gaur egun, ur hauen kalitatea oso altua da eta hainbat herri zein industriagune hornitzen ditu. Arabako Foru Aldundiko teknikariek kezka azaldu dute horren inguruan.

TRANSIZIO ENERGETIKO BATEN ALDE!

¡NO A LOS POZOS DE GAS!

Uno de los mayores retos civilizatorios es detener el cambio climático, problema mundial provocado, en buena medida, por el desmesurado uso de combustibles fósiles que suponen la emisión constante de gases de efecto invernadero. La CAPV es una comunidad con un serio problema energético. Lejos de acercarse al objetivo europeo de tener el 32% de energía renovable para el 2030, nos hallamos en un triste 7-8%. Pero en lugar de buscar ese objetivo, se sigue apostando por peligrosos proyectos de gas que, además, perpetuarán nuestra dependencia de los combustibles fósiles. Uno de esos ejemplos es el proyecto de perforación del pozo de GAS Armentia-2 en Subijana de Alava en el mismo lugar donde se pretendía utilizar el fracking.

El proyecto Armentia- 2 se ubica en el municipio de Vitoria-Gasteiz, "GREEN CAPITAL 2012", que corre el riesgo de convertirse en la capital vasca de la producción de hidrocarburos y que afectaría a nuestro entorno natural (ZEC del Zadorra, Montes de Vitoria, etc.) y a las actividades agrícolas y ganaderas de ese entorno.

La perforación del pozo Armentia-2 mediante técnicas, que se nos presentan como convencionales, implicará una perforación vertical de más de 5.000 metros de profundidad y la perforación de 4 pozos laterales de hasta 1.000 metros de longitud cada uno. Además, perforaría el acuífero de Subijana, la mayor reserva subterránea de agua de la CAPV, que abastece a varios pueblos y zonas industriales.

¡A FAVOR DE UNA TRANSICIÓN ENERGÉTICA!

Estatuko Ingurugiroko Idazkaritzari
Erreferentzia: "ARMENTIA-2 zundaketa"

Sinatzaileak, erakunde horren aurrean agertu eta zuzenbidean bidezkoen den moduan, honako hau **ADIERAZTEN DUTE**:

2018ko Ekainaren 15eko BOEn, **Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S.A., (SHESA) enpresa publikoak eskatuta, "ARMENTIA-2 zundaketa"-ren Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluazioa eta Ezarpen Txostena argitaratu zen**. Haren bidez, ikerketa jendaurrean jarri eta informazio publikorako zein alegazioak aurkezteko 30 egun balioduneko epea zabaldu zen. Hori dela eta, alegazio hauek egin nahi ditugu:

ALEGAZIOAK:

1. Armentia-2 putzuko zulaketa, ia Araba osoko lur-azpitik gas ez konbentzionala erauztea helburu duen plan handiago baten barruan kokatzen da. Izan ere, ugariak dira enpresa sustatzaileak (SHESA) zein Eusko Jaurlaritzak zentzu honetan egindako deklarazio publikoak. Gas hobi honen ustiaketak, bere ezaugarriengatik, lurraldean zehar **milaka putzuen zulaketak** ekarriko litzuke, gasa ez baitago poltsa bakar batean, baizik eta sakabanatua.

Horregatik, **proiektu hau gauzatzeak lurraldean, biztanlerian edota ingurumenean eragin ditzakeen efektuak aztertzen dituen Ingurumen-Inpaktu Azterketa Estrategikoa egin beharko litzateke**, Ingurumen-Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 legea aintzat hartuta.

2.- Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren arabera, Armentia-2 putzua zulatu nahi den lursaila Baso balioko Lurzoru Urbanizaezinaren kalifikazioa dauka eta **erauzketa jardueri atxikitutako ustiaketa espresuki debekatuta dago**.

3.- **Armentia-2 putzuak Subijanako akuiferoa zeharkatuko luke**. Hau, Euskal Autonomia Erkidegoko lurrazpiko uren erreserba nagusia da eta kalitate altuko uren hornikuntzarako baliabide estrategikoa da. Izan ere, hainbat herri hornitzen ditu eta ezusteko lehorteen aurrean hiriburua hornitzeko ere prest egongo litzateke.

Akuiferoaren ingurumenarekiko garrantzia eta balio estrategikoa kalkula ezina da eta sustatzaileak ez du lohien bitarteko kutsadura-arrisku eza bermatzen. **Zulaketa aurrera eramateko, bentonitak, gatzak, barita, karbonato kaltzikoa, polimeroak, lohiz betetzailak, detergenteak, biozidak... bezalako hainbat produktu kimiko dituzten milioika litro lohi erabiliko liratezke**. Zulaketa-lohi horien atal bat zuzenean akuiferora isuriko litzateke eta beste zati bat lur-azpiaren apurketa naturalen bitartez akuiferora helduko litzateke. Isuriren bat gertatuz gero Zadorra ibaira iritsiko liratezke.

4.- Armentia-2 putzuko enpresa sustatzailea, SHESA, %100 publikoa da, Eusko Jaurlaritzakoa. Klima aldaketaren eta baliabide fosilen agortzearen gaur eguneko testuinguruan, gobernuen inbertsioak energia berriztagarrietan oinarritutako benetako trantsizio energetikora zuzenduta egon behar dira, erregai fosilak alde batera utzita. Ikerketa guztien arabera, gas erauzketek metano ihesak eragiten dituzte atmosferara, aldaketa klimatikoan CO₂a baino 25 aldiz gehiago eraginda. Horrek esan nahi du **gasak ikatza baino gehiago eragiten duela aldaketa klimatikoan**.

5.- Armentia-2 putzua Gasteizko Mendietan kokatuta dago. Gasteizko Mendien Eremuko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana egiteko eta onartzeko prozedura Eusko Jaurlaritzako Ingurumen kontseilariak hasi zuen, 2010eko urtarrilaren 12ko aginduaren bitartez. **Ingurumen-balio handia duen eremu honi eman nahi zaion babesa kontuan hartuta, gas putzu baten eraikuntzarekin bateragarria ez dela ikusten da**.

Adierazitako guztia dela eta, honako hau **ESKATZEN DUGU**:

Agiri hau onartu eta aurkeztutzat jo ditzazula aurreko alegazioak. Era berean, behar diren tramiteak egin ondoren, **ez dezazula onartu proiektuaren Ikerketa Informatiboa, ez dezazula aitortu interes orokorreko proiektutzat jo eta ingurumenaren gaineko eraginaren ezezko adierazpena egin dezazula**.

A la Secretaría de Estado de Medio Ambiente

Referencia: "Sondeo ARMENTIA-2"

Las personas firmantes, comparecen ante esta entidad y como más procedente sea en Derecho, **DICEN:**

Que habiéndose publicado en el BOE del 15 de junio de 2018 el anuncio del **Estudio de Impacto Ambiental y el Informe de Implantación del "sondeo ARMENTIA-2" solicitado por la Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S.A., (SHESA)**, y se abre un periodo de 30 días hábiles para información pública y alegaciones; mediante este escrito, en tiempo y forma, realizan las siguientes alegaciones:

ALEGACIONES:

1.- La perforación del pozo Armentia-2 se enmarca dentro de un plan más amplio que aspira a extraer gas no convencional de prácticamente todo el subsuelo de Araba. Son abundantes las declaraciones públicas que en este sentido han realizado desde la empresa promotora (SHESA) así como por parte del Gobierno Vasco. **La explotación de este yacimiento implicaría, por sus características, la perforación de cientos o miles de pozos a lo largo del territorio** ya que el gas no se encuentra en una bolsa sino diseminado en todo el yacimiento.

Por este motivo, sin perjuicio de la correspondiente tramitación de la evaluación de impacto ambiental de este proyecto, y según lo establecido en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación de Impacto Ambiental, **corresponde realizar previamente un Estudio de Impacto Ambiental Estratégico que estudie todos los efectos acumulativos** que el desarrollo de este plan pudiera tener sobre el territorio, las personas y el medio ambiente.

2.- Según el Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, la parcela donde se pretende perforar el pozo Armentia-2, esta calificada como suelo No Urbanizable de Valor Forestal, quedando prohibida expresamente la explotación asociada a actividades extractivas.

3.- El pozo Armentia-2 pretende atravesar el acuífero de Subijana. Se trata de la mayor reserva de agua subterránea del País Vasco y es un recurso estratégico para el suministro de agua de muy alta calidad que, además de abastecer en la actualidad a diferentes poblaciones y polígonos industriales, esta preparado para usarse en caso de sequía o necesidad para el abastecimiento de Vitoria-Gasteiz.

La importancia medioambiental y el valor estratégico de este acuífero es incalculable y el promotor no acredita de manera suficiente que no exista riesgo de contaminación a través de los lodos utilizados. **Para la realización de la perforación se usarían millones de litros de lodos de perforación con productos químicos como bentonitas, sales, barita, carbonato cálcico, polímeros, colmatantes, detergentes, biocidas...** Parte de estos lodos irían directamente al acuífero y otra parte podría llegar al acuífero por las fracturas naturales del subsuelo. **También podrían acabar en el Zadorra por algún derrame accidental.**

4.- La empresa promotora del pozo Armentia-2, SHESA, es una empresa pública perteneciente al 100% al Gobierno Vasco. En el actual contexto de cambio climático y agotamiento de los recursos fósiles, las inversiones de los gobiernos deben dirigirse a posibilitar una verdadera transición energética basada en las energías renovables y dejar de lado las inversiones en los combustibles fósiles. En la extracción de gas se provocan escapes de metano según todos los estudios publicados. El metano que se escapa a la atmósfera tiene un efecto sobre el cambio climático 25 veces mayor que el CO₂. Esto implica que **el gas tiene un efecto sobre el cambio climático mayor que el del carbón.**

5.- La ubicación del pozo Armentia-2 se encuentra dentro del ámbito por el que la Orden de 12 de enero de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente del Gobierno Vasco inició el procedimiento de elaboración y aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Área de los Montes de Vitoria. **La realización de un pozo de gas en este lugar es incompatible con la protección de la que se pretende dotar a un entorno de tanto valor ambiental.**

Por todo lo expuesto, **SOLICITA:**

Que, habiendo presentado este documento, lo admita, y en su virtud tenga por presentadas las alegaciones anteriores, a fin de que, tras los trámites oportunos, **NO apruebe el Estudio Informativo del proyecto, ni lo declare de interés general, y emita una Declaración de Impacto Ambiental Negativa.**

SINADURAK / FIRMAS

- 18 urte baino gehiago
- Letra larriz eta argi idatzi
- Behin sinatu baduzu ez sinatu berriro

- **Mayores de 18**
- **Escribir con letra clara, legible y en mayúscula**
- **Si ya has firmado no vuelvas a hacerlo**

[illegible]

[illegible]

[illegible]

**ALEGAZIOEN KANPAINARI AMAIERA EMATEKO, UZTAILAREN 31an
ASTEARTEAN, GORBEIAKO TONTORREAN ARGAZKI ERRALDOIA
ANIMA ZAITEZ!!!!**

**¡¡PARA DAR FIN A LA CAMPAÑA DE ALEGACIONES, EL MARTES 31 DE JULIO
FOTO GIGANTE EN LA CIMA DEL GORBEA!!**

¡¡¡ANÍMATE!!

PUTZURIK EZ!



BERRAZTU!